

## Fitxa interneten bistaratu

### INFORMAZIO OROKORRA

#### Helburua

Bidaiariak turismo ibilgailuetan garraiatzeko baimenen aldaketak izapidetzea:

- Helbidearen aldaketa
- Ordezkapena
- Transmisioa
- Bajak

#### Nork tramitatzten du

- MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DPTUA.
- Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
- Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua

#### Harremana

##### Helbidea:

Julio Caro Baroja plaza, beheko solairua - atzealdea, 20018 Donostia

##### Ordutegia:

8:30etik 13:30era astelehenetik ostiralera

##### Helbide elektronikoa:

[garraioaimenak@gipuzkoa.eus](mailto:garraioaimenak@gipuzkoa.eus)

##### Harremanetarako telefonoa:

943 112991

#### Nori zuzenduta

Autonomoak.

#### Baldintzak

- Ordezkatzea: 2 urte baino gutxiagoko ibilgailuak. Honetaz gain, ibilgailu berriak ordezkatutakoa baino berriagoa izan behar du.
- Egoitza aldaketa: udalerrri edo kale aldaketa.
- Transmisioa: lizentziaren titularra den Udalaren baimena behar da.
- Bajak: aldi baterako etendura dagoelako (gehienez 3 hilabete).
- Ordaindu gabeko zehapenik ez izatea.
- Aholkularitza edo gestoria baten bitartez jardunez gero: gestoriak 001k ordezkarri erroldan alta emanda egon behar du.

### HASIERA ETA ESKAERA

#### Aurkeztu beharreko agiriak

- 1.- Eskabidea behar bezala beteta. [GBE](#)
- 2.- Tasaren ordainketa: ES65 2095 0611 091061117395 banku kontura egindako transferentziaren ordainagiria (bajen kasuan izan ezik).
- 3.- Interesdunaren baimena, agiri jakin batzuk egiaztatzeko Administrazioak ofizioz erregistro publiko zehatz batzuetara sartzeari ahalbidetzen duena (bajen kasuan izan ezik). [ERREGISTRO PUBLIKOAK](#)

##### Izapide bakoitzaren arabera:

**4.- Ordezkatzea:** ibilgailua ordezkatzeko Udalaren baimena; zirkulazio baimena; ibilgailuaren fitxa teknikoa, taximetroaren altarekin (1040); ibilgailua JEZeant alta emanda egotearen agiria (840, autotaxi bidezko garraioa, estatu mailako jarduera esparrua); erantzukizun zibilerako aseguru poliza estaldura mugagabearekin eta indarrean dagoen ordainagiria; garraio liburuak.

**5.- Egoitza aldaketa:** Trafikoko Zuzendaritza Nagusian (DGT) egindako helbide-aldaketa; 036 inprimakia, helbide-aldaketa egin izana egiaztatzen duena; garraio liburuak. Horretaz gain, pertsona fisikoek, errolda agiria; pertsona juridikoek, helbide aldaketaren eskriturak eta enpresaren IFK.

**6.- Transmisioa (titular aldaketa):** titular berriaren identifikazio agiria; lizentzia transmititzeko Udalaren baimena; ibilgailuaren fitxa teknikoa, taximetroaren altarekin (1040); zirkulazio baimena; ibilgailua JEZeant alta emanda egotearen agiria (840, autotaxi bidezko garraioa, estatu mailako jarduera esparrua); BEZeant alta emanda egotearen agiria (036, autotaxi bidezko garraioa); lan-bizitza eguneratua; sinadura elektronikoa edukitzearen egiaztatzea; ekipamendu informatikoa eta posta elektronikoa izateari buruzko zinpeko aitortpena; erantzukizun zibilerako aseguru poliza estaldura mugagabearekin eta indarrean dagoen ordainagiria; garraio liburuak.

**7.- Bajak:** Udalaren baimena eta eskaera behar bezala beteta. [BAJA ESKAERA](#)

## Eskaera moduak

- » Internet

## Internet bidezko eskaera

Eskaera eta dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistro elektronikoaren bidez bidali behar da. <https://egoitza.gipuzkoa.eus/WAS/CORP/WATTramiteakWEB/inicio.do>

## Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

- » Ziurtagiria eta B@KQ

## EBAZPENA

---

### Ebazteko gehienezko epea

Legezko epea: 3 hilabete.

## ARAUDIA

---

- Berezia:

- [2000ko ekainaren 29ko 2/2000 Legea](#) (2000-08-01eko EHAO), turismo ibilgailuetan egiteko bidaiarien herri barruko edo herriarteko garraio publikoari buruzkoa.
- [243/2002 Dekretua](#) (2002-12-05eko EHAO), turismo ibilgailuetan egiteko bidaiarien herri barruko edo herriarteko garraio publikoa arautzen duen Legearen Erregelamendua onartzen duena.
- [2005eko otsailaren 11ko Agindua](#) (2005-03-04ko EHAO), Garraio eta HerriLan sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan turismo ibilgailuetan egiten den bidaiarien herriarteko garraio publikorako gehienezko baimen kopurua ezartzen duena.
- [1993ko otsailaren 4ko Agindua](#) (IV atala), Lehorreko Garraioak Antolatzeko Legearen Erregelamendua garatzen duena, bidaiarien errepideko garraio diskrezionala egiteko baimenei buruz.

- Orokorra:

- Uztailaren 30eko 16/1987 Legea, Lurreko Garraioa Antolatzekoa, zeina aldatu egin baitzen uztailaren 4ko 9/2013 Legearen bidez. [Legea, lehorreko garraioak antolatzeari buruzkoa](#),
- Irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretua, Lurreko Garraioa Antolatzeko Legearen Erregelamendua onesten duena, zeina aldatua izan baitzen otsailaren 15eko 70/2019 Errege Dekretuaren bitartez. [LGAE](#)

## INFORMAZIO OSAGARRIA

---

### Oharrak

Ikus-onespena: lau urtean behin, urte bikoitietan 2022 urtetik aurrera. Eskabidea NAren azken digituari dagokion hilean aurkeztuko da (urtarrila: 1, otsaila: 2, eta abar, abuztua: baliogabea, iraila: 8, urria:9, azaroa: 0)  
Birgaitzea: ikus-onespena atera behar zen hiletik urtebete bat igaro aurretik.